



## **INAUTERIETAKO ABESTIAK**

### **DIANA**

JEIKI GUZTIOK GOIZ KANTAREN  
SOINUA  
ETA EZ GALDU ONDOREN DATORRENA  
DANBOLIN HOTSAK ETA TXARANGA  
ALAIK  
EGIN DEZATEN GURE GOZAMENA  
TOLOSAR LEGEZ EDARI TA JANAZ  
BERDINDU ZAGUN ONDOREN BARRENA  
TA ZABALDU GURE UMORE ONA  
JUN DEDIN POZIK HONUNTZ  
DATORRENA.  
JEIKI JEIKI OHE HORTATIK GAUR  
TOLOSARRAK  
IÑAUTERIAK BETI ALAITZEN GAITU  
GUZTIZ  
JEIKI JEIKI OHE HORTATIK GAUR  
TOLOSARRAK  
GOAZEN FESTARA DANOK GOIZETIK.

### **IRIYARENA**

AI TOLOSAKO ZEZEN SUZKOA  
IZAN ZAITEZ ZORIONEKO.  
ZEZENA DATOR ARKUPETATIK  
SUA DARIOLA ADARRETATIK

ZINBULUKA TA ZANBULUKA  
TA JENDEAREN ATZETIK.

### **MUGI MUGI**

MUGI, MUGI GORPUTZ HORI GOGOTSU  
ZURE DANTZAK JARTZEN NAU  
DANTZAN  
BERDIN ZAIT GORRIA IZAN,  
HORIA, ZURIA EDO BELTZARANA.  
DANTZAN HASITAKOAN  
DANTZAN HASITAKOAN  
NAHIZ TA GORRIAK IKUSI  
EZ GARA GORRITZEN TXANTXO  
AZPIAN.

### **ZEIN EDERRA**

ZEIN EDERRA, ZEIN XARMANTA  
TOLOSAKO INAUTERIA  
HERRI JATOR TOLOSARRA  
AGURTUZ DUGU ATSEGINA.  
HUNGARIAKO KALDEREROAK GARA  
ETORRIZ TOLOSALDERA  
LAISTER MOMOK AGINDUKO DIGU  
NAHIZ EGUNA NAHIZ ETA GAUA  
INAUTERI ALAIAREN IRAGARLE GU  
GARA  
AI ATSEGINA ETA ALGARA

AIZAK, JOZAK, JOZAK  
AIZAN, JOZAN, JOZAN.

### **ADISKIDE MAITEAK**

ADISKIDE MAITEOK  
EKIN BAI LANARI  
KRISEILU, LAPIKO, PERTZAK  
BURRUNTZALI ETA ELTZEAK  
AISE KONPONTZEN GU GARA  
MERKE ETA TREBEAK.  
ETA LANA MUSU TRUKE  
POZIK EGINGO GENUKE  
HOR BEHEKO NESKA POLITTEK  
ESKATZEN BADIGUTE.  
TOLOSAR NESKA PONPOXAK  
EZ AL DUGU BESTE LANIK?  
AURTENGOZ BADUGU ASKI  
ETA GOAZEN AURRERA.

